



Haririk

Borroka sindikalak
Europar eta Latinoamerikan

iparheg^{oa}

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

BORROKA SINDIKALAK EUROPAN ETA LATINOAMERIKAN

| | |
|--|-----------|
| SARRERA | 3 |
| 1. EUROPAR BATASUNAREN POLITIKAK KRISIAREN AURREAN ETA SINDIKATUEN BORROKA | 5 |
| 1.1. EUROPAR BATASUNAREN POLITIKA | 5 |
| (BRYAN CARTY, SINN FÉIN, IRLANDA) | |
| 1.2. SINDIKATUEN BORROKA | 7 |
| NIKOS THEODORAKIS, PAME, GRECIA | |
| PIERPAOLO LEONARDI, USB, ITALIA | |
| AUGUSTO PRAÇA, CGTP, PORTUGAL | |
| 2. PROCESOS DE TRANSFORMACIÓN POLÍTICA Y SOCIAL EN LATINOAMÉRICA Y LA APORTACIÓN SINDICAL | 17 |
| 2.1. JULIO C. GAMBINA, CTA, ARGENTINA | 17 |
| 2.2. JUAN CASTILLO, PIT-CNT, URUGUAI | 19 |

SARRERA

Argitaratzen dugun testua Ipar Hegoa Fundazioak eta LAB sindikatuak antolatutako bi jardunalditan oinarrituta dago. 2011-2012 ikasturtean antolatu genituen bi jardunaldien bidez eta orain aurkezten ditugun testu hauen bitartez, alde batetik, gaur egun Europa pairatzen ari den krisi kapitalista eta bere ondorioak aztertu nahi dugu, Grezia, Portugal eta Italiako kasu zehatzak hurbilduz, eta bestalde, Latinoamerikan gaurkotasan osoa duten eta lantzen ari diren alternatibak ekarri nahi izan ditugu.

Lehenengo zatia, 2011ko irailaren 29an "Europar Batasunaren politikak krisiaren aurrean eta sindikatuen borroka" izenburupean egindako jardunaldian emandako hitzaldien egokitzapena da. Jardunaldi hau urriaren 3rako Munduko Federazio Sindikalak (FSM) antolatua zuen Nazioarteko mobilizazio egunaren testuinguruan kokatuta zegoen, eta bere helburua izenburuak berak zioen moduan bikoitza zen. Alde batetik, Europar Batasuneko politikak benetan norik erabakitzen dituen eta nola erabakitzen diren aztertzea, bereziki Europar Batasuneko barne funtzionamendua. Beste alde batetik, gaur egun pairatzen dugun kapitalismoaren krisiaren sakontze honetan Europar Batasunak (EB) eta hainbat estatuk inposatu dituzten neurrien berri eta horiei aurre egiteko sindikatuek egindako borroken berri eman nahi zen, batez ere neurri zorrotzenak inposatu dituzten estatuetako klase sindikatuen borroken berri.

Horretarako guztirako, jardunaldia bi ataletan egituratu zen. Europar Batasunaren berri emateko Sinn Fein alderdi errepublikar irlandarraren Europar Batasuneko Bulegoko arduradun Brian Carty etorri zen. Sindikatuen borroken berri emateko, berriz, Europan gehien borrokatzen ari diren Grezia, Italia eta Portugalgo klase sindikatueta zuzendaritzetako ordezkariak etorri ziren: Grezian, 600.000 langile baino gehiago ordezkatzeko dituen PAME sindikatuko Nikos Theodorakis eta George Pontikos; Italiatik, 200.000 langile ordezkatzeko dituen USBko Pierpaolo Leonardi eta Paola Palmieri; eta Portugaldik 800.000 afiliatu dituen CGTPko Augusto Praça.

Orrialdeotan, beraz, hainbat gako dauzkagu Europar Batasunaren funtzionamendua hobeto ulertzeko. Eta horrez gain, klase dominatzaileak aurrera eramaten ari diren eraso hiru adibide eta horiei langile mugimendutik erantzuteko ereduak ere dakartzigu. Izan ere, horrelako hausnarketak eta hartu-emanak behar-beharrezkoak dira, are gehiago, egungo krisi kapitalista sistemikoa delako, nazioartekoa, eta gehien sufritzen ari direnak langileok garelako. Dagoeneko argi geratu da bizi dugun egoera iruzur hutsa dela, enpresariak ongizatea zekartela esan dute behin eta berriz eta oraingoan egiaztatu dugu ez dela egia, eta hauxe dela kapitalismoa, egun ikusi eta pairatzen ari garena hain zuzen ere: pribatizazioak, sektore publikoaren deuseztapena, lan eskubideen eta eskubide sindikalen galera, kaleratzeak, langabezia, etab. Horren aurrean, nahitaezkoa da alternatiba sortzea aldatuta soziala eragiteko, baina horretarako aldatuta politikoa ezinbestekoa da. Eta aldatuta politikoa soilik lortuko ditugu langileriaren borroka, klase politikoa behartuz, eurek ez dutelako euren erabaki propioz egingo. Bide horretan, ezinbestekoa da langileriaren internazionalismoa eta sindikatuen elkarlana, egungo Europar Batasunaren egoerak argi erakusten duen legez.

Testuaren bigarren zatia otsailaren 1ean antolatutako "Eraldatuta politikoa eta sozialeko prozesuak Latinoamerikan eta ekarpen sindikala" izenburua zuen jardunaldiaren laburpena da. Oraingoan arestian aipatu alternatibak izango dira hizpide. Izan ere, jardunaldi horren helburua gaur egun Europan pairatzen ari garen eraso neoliberalak orain hamarkada bi sufritu zituzten herrialdeek aurrera eramandako borroka ezagutaraztea zen, zelan aurre egin zieten ofentsiba neoliberalari eta, bereziki, azken urteotan garatzen ari diren eraldaketa politikoa eta sozialerako prozesuak eta berauei mugimendu sindikalak egindako ekarpenak azaltzea da.

Horretarako Argentinako CTA sindikatuko kide eta ekonomia unibertsitate irakasle Julio Gambina eta Uruguako PIT-CNT sindikatuko bozeramaile nazional Juan Castillok parte hartu zuten.



4

Gambinak Latinoamerika eta Karibeko erregioaren testuinguruaren berri eman zuen, aldaketarako subjektuaren garrantzia azpimarratu zuen eta gaur egungo alternatiba eta prozesu eraldatzaileen jatorria urteetako borroka eta erresistentzietan dagoela azaldu zuen.

Bestalde, Castillo urteetako borroka eta erresistentzia horietatik abiatu zen eta prozesu eraldatzaileei langile klaseak eta mugimendu sindikalak egindako ekarpenak azaldu zituen. Horien artean ESNAREN esperientzia (Encuentro Sindical "Nuestra América"- "Gure Amerika" Topagune Sindikala) azaldu zuen, bertatik aldaketa politikorako egiten den ekarpen sindikala erakutsiz.

Beraz, esku artean daukazu testua Europako erresistentzietatik abiatzen da, Latinoamerikako alternatibetara igaroz. Eta erronka argia da, Europako herri langileok Marti, Bolibar, Gebara eta beste hainbat borrokalariren eraldaketa prozesuetatik ikasi eta gure kontinenteko erresistentzia borroketatik eraldaketa politiko eta sozialerako bidea ahalik eta lasterren egitea, Europan ere alternatibak sortzeko, bereziki Euskal Herrian.

2012ko maiatza

1. EUOPAR BATASUNAREN POLITIKAK KRISIAREN AURREAN ETA SINDIKATUEN BORROKA



1.1. EUOPAR BATASUNAREN POLITIKA. BRYAN CARTY, SINN FÉIN, IRLANDA.

“Nork erabakitzen ditu EBko politikak benetan?”

Gehienontzat urrunekoa eta ulertzen zaila da Europar Batasuna. Ez da argi egoten nork hartzen dituen erabakiak, eta zergatik. Europar Batasuna erabakiak hartzeko arau batzuk dituen erakunde politikoa da, berez. Ez da politikoki neutrala. Haren esparru konstituzional, instituzional eta politikoak mugatu egiten ditu aldaketa aurrerakoiak egiteko aukerak.

EBren esparru konstituzionala.

Itunak edo tratatuak dira EBren esparru konstituzionala. EBko tratatuak maiz aldatzen dira urteen buruan. “Lisboako Ituna” izan da azkeneko aldaketa. Aurreko proposamena (Konstituzio Ituna) atzera bota zuten Frantziako eta Herbehereetako hautesleek, bai eta irlandarrek ere, bigarren erreferendum batean inposatu zitzaizen arte.

Itunetan politika ekonomiko neoliberalen aplikazioa bermatzeko esparru eta prozedurei buruzko xehetasun guztiak ezartzen dira. Itunak “Oinarritzko Askatasunak” direlakoetan oinarritzen dira: ondasun, langile, zerbitzu eta kapitalen joan-etorri askean, hain zuzen.

EBko politika guztiak “oinarritzko askatasun” horien mende daude. Enpresei ahalik eta irabazi gehien eskuratzeko aukera ematen dien lehia-eredua bultzatzeko erabili dituzte askatasun horiek EBko erakundeek, langileak eta herrialdeak elkarren aurka jarriaz.

EBko sistemaren barruan onartutako lege guztiak bateragarriak izan behar dira Itunetako xedapekin. Horrenbestez, EBk langileentzako ordain-sari eta baldintza aurrerakoiak onartzeko dituen aukerak oso murrizak dira.

EBren esparru instituzionala

EBren barruko erabaki-prozesua korapilatsua da, baina ez zeharo ulertezina. Legegintzako egin-tzak Europar Batzordeak proposatzen ditu. Proposamen guztiek bat etorri behar dute EBko tratatuekin. Indarrean sartu ahal izateko, lege gehienak elkarrekin hartutako erabaki-prozesu baten bidez hartu behar dira: beharrezkoa da Europako Parlamentua eta Ministro Kontseilua ados jarzea. Eta Europako Banku Zentrala (EBZ) dago horren guztiaren atzean, krisi ekonomikoaren eragile nagusienetakoa izan dena eta Greziaren gainbehera eragin duena, hain zuzen ere.

Herrialde txikiek eragin gutxiago dute erabakietan herrialde handiek baino (EB ez zen berdinen arteko hitzarmen gisa sortu). Politikaren bat aldatzeko, ez da aski gehiengo lortzea, gehiengo kualifikatua behar da (herrialdeen %55, biztanleen ordezkariaren %65). Horren arabera, gutxiengoek proposamenak blokeatzeko aukera dute eta hori erabilgarria izan daiteke batzuetan, proposamen atzerakoiak blokeatzeko adibidez, baina aldaketa aurrerakoiak lortzeko oztopo potentziala ere bada.

Aldaketa politikoak lortzeko, hiru erakundeen babesa lortu behar da: Batzordearena, Parlamentuarena eta Kontseiluarena. Gaur egun eratuta dagoen moduan, pentsaezina da langile arrunten egoera hobetuko duen neurri aurrerakoirik bultzatzea EBk.

Burokraten esku dago prozesu guztia. EBko estatuetako burokratek EBko beste estatu batzuetako burokratekin eta Europar Batzordeko burokratekin negoziatzen dute, eta hautetsiengana iristerako, politiken %95 adostuta dauzkate beren artean.

Estatu handietako gobernuek erabakitze-prozesu guztia kontrolatzen dute, bitarteko hauen bidez::

- funtsezko ardurak eskuratuz "beren" komisarioentzat, eta "beren" funtzionarioak Batzordeko funtsezko postuetan kokatuz.
- funtsezko postuak eskuratuz "beren" europarlamentario eta funtzionarioentzat Europako Parlamentuaren barruan, eta Parlamentuko boto-multzo handienak osatuz.
- beren neurriaz baliatuz Ministro Kontseiluko bozketetan.

EBko tratatuen muga barruan, herritarrek eta mugimenduek eragina izan dezakete politiken gainean, eta bitartekoak daude herritarrek beren iritzia adierazteko EBko erakundeei, Batzordeari, europarlamentarioei eta gobernuei zuzendutako lobby-lanaren bidez. Baina izugarri zaila dago benetako aldaketa aurrerakoirik lortzea.

EBko esparru politikoa

"Ezker" politikoa ahul samarra da. Alderdi politikoak alde batera utzita, EBn eragina izan nahi duten gainerako indarren artean, enpresak eta industria dira alde handiarekin finantziario sendoen eta antolakuntza onena dutenak. Gainera, legeak lagun, EBko erakundeetako ardura delikatuak dituztenenganaino iristen dira enpresa eta industriako ordezkariak. Ardura uzten duten komisarioek ederki ordaindutako zuzendaritzak eskuratzen dituzte beren arduraren zeudenean lagundu zituzten enpresetan; industriako lobbyetako kideak Batzordeko aholkulari izendatzen dituzte; enpresek europarlamentarioak ordaintzen dituzten "aholkulari" jarduteko, enpresa horien interesak zaintzeko, parlamentari aukeratu zituzten hautesleen interesak babestu beharrean...

Sindikatuak ere nolabaiteko errekonozimendua dute EBko erakundeetan, baina zuzendaritza-mailan gehienek zail dute ekonomiaren funtzionamenduari buruzko kontsentsu neoliberalari ihes egitea. Zail izaten dute gizartearen gaineko ikuspegi zinez alternatiboa egituratzea.

Beste indar batzuk ere saiatzen dira EBko erakundeak modu positiboan baldintzatzen: emakumeen mugimenduak, gizarte-mugimenduak, mugimendu ekologistak, elkartasun-mugimenduak, berdintasunaren eta justiziaren aldeko mugimenduak... Gehienek ere lan ederra egiten dute eta gure babesa eta bultzada merezi dituzte, baina azkenean beren gai bereziari dagozkion helburu zehatzetara mugatzen dira askotan eta ez daukate EBren oinarritzko esparru politikoari aurre egiteko gaitasunik.

Aurreko guztiaz gain, hedabideak ditugu, testuinguru politikoa taxutzen kontsentsu erabatekoan, eta beti ere mezu bera zabaltzen: ez dagoela alternatibarik austeritate-programei, langabeziaren gorakadari, soldaten beherakadari, lan-baldintzen aurkako erasoari eta gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ongizatearen murrizketari aurre egiteko. Iritzi kritikoak zokoratu eta barrengarri uzten dituzte.

Norantz doa Europar Batasuna?

Krisi ekonomikoari aurre egiteko konponbide guztiak EB mailan hartu behar omen dira. EB mailan hartutako neurriei jarraiki, lanpostuetan eta hazkunderan inbertitzea lagungarria izango litzateke, bai, baina EB mailan aztertzen diren ekintza guztiak areago murgiltzen gaituzte tratatuek zedarritutako logika neoliberallean. Gure herrialdeetako batzuk Europar Batasunaren eta Nazioarteko Diru Funtzaren kontrol zuzenaren pean daude, eta Europar Batzordeak eta Europako Banku Zentralak tematuta jarraitzen dute bankuak eta finantza-erakundeak babesten, jendearen aurretik.

Burujabetza Europar Batasunaren esku uzten ari dira gobernuek eta ez dute herritarren hobe beharrez lan egiten. Gero eta botere handiagoa ematen ari zaizkio EBri, gobernuen jardun-esparrua areago murriztu dezan. Gobernuek beldur diote gertakari ekonomikoari eta muzin egiten diote egoera kontrolatzeko neurriak hartzei. Murrizketak ez dira berriak. Urteak daramatzagu halakoak jasaten, hainbat modutara: egonkortasun eta hazkunderako itunaren bidez, diru komunaren bidez eta EBko estatuen jarduteko ahalmena mugatzen duten gainerako tresnen bidez.

Baina erabaki ekonomikoak gero eta zentralizatuago daude, eta gobernuek geroz eta oztopo eta muga gehiago aurkitzen dituzten garapen ekonomiko eta sozialerako nahi duten bidea aukeratzeko garaian. Estatuaren burujabetza areago mugatzeko aitzakia gisa erabiltzen ari dira krisia. Burujabetzaren funtsezko elementuak besterentzen ari dira, eztabaida egokirik egin gabe eta Europako herrien adostasunik gabe.



1.2. SINDIKATUEN BORROKA NIKOS THEODORAKIS, PAME, GREZIA.

Lehenik eta behin gure erakundea aurkeztuko dizuet. PAME 1999an sortu zen, sektore publiko eta pribatuko langileak biltzen dituzten klaseko sindikatuen, federazioen eta sindikatu erregionalen arteko frontea osatzeko. Gaur egun 700.000tik gora langile ordezkatzen ditugu. Zenbait sindikatu defendatzen duten "elkarrizketa sozialeko eta klaseen arteko lankidetzako" ideologiaren aurka eratu zen PAME. 2001etik Sindikatuen Mundu Federazioko (FSM gaztelaniaz eta frantsesez) kideak gara, eta XVI. kongresua gure herrian antolatu genuen. Kongresu historikoa izan zen klasean oinarritutako sindikatuen mugimenduarentzat.

Greziako, EBko eta mundu mailako azken gorabeherak berretsi egin dute PAMEk egungo krisi kapitalistaren ezaugarri, kausa eta sakonerari buruz esandakoa, eta krisi horrek utziko zituen ondorioei buruz iragarritakoa. Kapitalistek krisia beren interesen alde erabiliko zutela esan genuen, eta kapitala modu kontrolatuan suntsitzeko aukeratzeko den bidea edozein dela ere, herritarrei iritsiko zitzaiena porrot ekonomiko bortitz eta kontrolaezina izango zela, beren arteko lehiak alde batera utzita, monopolioek, gobernuek eta alderdiek bat egingo zuten estrategia baten barruan.

Krisiak eragindako irteerarik gabeko testuinguru honen erdian, estrategia horixe da langileen aurkako neurriak etengabe inposatzen ari dena, langileen bizimodua jasangaitza bihurtzeraino. Gaur egun, geroz eta jende gehiagok pentsatzen du krisiaren ondoren ez ditugula berreskuratuko borroka odoltsuen bidez eskuratutako eskubide eta lorpenak. Bestela esanda, gero eta jende gehiago konturatzen da egungo krisia ez dela arin pasako den ekaitza, jendea gogoz astinduko duen urakan bat baizik, aspaldi jasaten genuena baina orain dena suntsitzera datorrena.

Eurotaldearen azken konferentzian EBko estatuaren artean izandako negoziazio gogorrek (AEBen zuzeneko parte-hartzearekin) ez lituzkete langileak funtsezko gaitik aldendu behar: langileen aurkako eraso areagotzeko hartua duten erabaki estrategikoa, monopolioen lehiakortasuna babesteko helburuz. Eurogunearen biharamunerako aurreikusi diren egoera guztietan honako parametro hauek agertzen dira beti: eskulan merkeagoa, esplotazio handiagoa eta berregituratze eta pribatizazio gehiago, guztia ere pilatutako gehiegizko kapitala irabazi-tasa egokiarekin inbertitzeko leku berriak bilatzeko helburuz. Inork zalantzarik badu, joan den hamabost urtean Grezian ez ezik EBko estatu guzti-guztietan aplikatutako neurriak aztertu besterik ez du.

Azken bi goi-bileretan ikusi dugun bezala, euroguneko estatuaren gainzorraren kudeaketari lotutako zama estatuaren eta bankuen artean banatzeko modua izan da negoziazioetan eta hitzarmenaren proposamenetan hizpide izan dutena. Negoziaziorako oinarria Merkelek eta Sarkozyk 2011ko abuztuaren 16an aurkeztutako proposamenean datza: gobernantza ekonomiko bakarra eratu nahi dute eurogune osorako eta finantza-politika zorrotza ezarri, defizitrik gabeko aurrekontu orekatuak izateko. Eurotaldearen goi-bilerak Alemaniaren bidea berretsi zuen, finantza-gobernantza lehen helburutzat hartuta.

Europako Finantza Egonkortasunerako Funttsaren (EFEF) eskumenak zabaltzera mugatu ziren negoziazio zuzenak, guztia ere Europako bankuei laguntzearren, batetik, eta, bestetik, gobernuei maileguak emateko baldintzetan, hartzekodunei bermeak ematearren. Era berean, EFEFek aurre-

rantzean maileguak emateko ezarriko diren baldintzez eta eskueran dituzten baliabideak areagotzeko aukerez mintzatu ziren bileran. Estatu indartsuenak eta bankuak etor litezkeen egoeren — herrialderen baten porrot kontrolaezina, esate baterako — ondorio txarrak arintzeko prestatzea zen helburua berez. Goi-bilera egin aurretik, Christine Lagarde Nazioarteko Diru Funtseko zuzendari nagusia estatuei zuzendu zitzairen EBko eta AEBetako bankuen kapital-askitasuna babesteko, “munduko ekonomia aldi berri eta arriskutsu batean sartua” zela azpimarratuz. Adierazpenon ondoren, euroguneko bankuek behar zuten likidezia guztia injektatuko zutela iragarri zuten munduko bost banku zentral nagusiek (Europako Banku Zentralak, AEBetako Erreserba Federalak, Ingalaterrako Bankuak, Japoniako Bankuak eta Swiss Bankek).

Greziaren kasuan, bankuak blindatu nahi dituzte azkenean porrot kontrolatua, beste balio-galera bat edo kredituen itzuleraren aldi baterako etenaldia badatoz ere. Alemaniako Der Spiegel astekariak dagoeneko argitaratua zuen Alemaniako gobernuak bi aukera aztertzen ari zela: Grezia euroaren barruan eta Grezia eurotik kanporatua. Inork ez du albisteak gezurtatu. Bestalde, Finlandiaren eskaerari jarraiki, Greziak hartzekodunei bermeak ordaintzeko konpromisoa berretsi zen goi-bileran, eta Mid-Term programaren aplikazioa bizkortzea erabaki zen, halaber. Halere, bilera hauek erdigune inperialistetan izandako prozesu eta kontraesanen tontorra besterik ez dira. Eurotaldearen goi-bilera informalean ez zuten lortu EB barruan eta nazioarteko erdigune inperialisten artean ugaritzen ari diren kontraesanak baretzerik.

Kontraesan horiek ez dira euroguneko herrialdeen zorraren kudeaketara mugatzen. Arazoak daude epe luzerako hitzarmen bat lortzeko, baita zorraren zama eta beharrezko balio-galera EBko estatuen, bankuen eta monopolio handien artean banatzeko ere. Negoziazioak Grezia bezalako ekonomia txikiei buruzkoak ez, baizik eta Italia, Espainiar estatua edota Frantziar estatua bera bezalako herrialde handiei buruzkoak diren aldi honetan, bereziki. Nolanahi ere, EBko agintari politikoak konturatzen dira zor publikoaren igoera EBko estatuen arteko kontraesanen eta garapen desorekatuaren adierazgarria dela. Kontraesanok ugaritu besterik ez dira egin egungo fasean.

Kontraesan intrainperialisten igoera honako alderdi hauek eragin dute, berez:

- a) AEBetan eta eurogunean dagoeneko egiaztatu den ekonomiaren dezelerazioa eta beste dezelerazio bat gertatzeko aukera, AEBetan, EBn eta Japonian pilatutako gehiegizko kapitalak eragindako krisiarekin batera, guztia ere ELGaren, Munduko Bankuaren, komisionatu ofizialaren eta Batzordearen tarteko txostenaren aurreikuspenetan jasoa.
- b) Eurogunearen barruko garapen gero eta desorekatuagoa eta indar-korrelazioaren aldaketa, Alemaniaren alde. Alemaniako eta Frantziako hazkundeek duten lehiakortasunen arteko aldeak, eta, EBko lehen maila ekonomikoaren barruan Alemaniaren zenbait aliatuk (Austria, Herbehereak eta Finlandia) izandako indartzea. EBko esportazio guztien %27 Alemaniatik datoz, eta Frantziak %12 hartzen du bakarrik.
- c) Kudeaketa kapitalista orok ganorazko susperraldia lortzeko eta ekonomiaren beste dezelerazio bat galarazteko dituen zailtasun gero eta handiagoak. Ez finantza-kudeaketa burgesaren bertsio murriztua (Alemania adibide adierazgarritzat hartuta) ez AEBetako gobernuaren bertsio hedatzailea (estatuak monopolioei emandako laguntza-sorta handiekin) ez dira gai pilatutako gehiegizko kapitalaren zati handi baten balioa gutxitzeko eta kapitalari behar besteko irabaziehunekoa eskainiko dizkion inbertsio-eremu berriak sortzeko.

Ekonomiako sektore berriak, “ekonomia berdeak”, “ekonomia sozialak”, bioteknologiak eta halakoek ez dute garapen kapitalistaren benetako alternatiba osatzen. Eta testuinguru horretan areagotu egiten da Alemaniako klase burgesaren baitako borroka. Era berean, areagotu egiten dira eurogunea erreformatzeko eta Errusia eta Txinarekiko lankidetzak harremanak sakontzeko neurrien eskaerak. Halaber, ukaezina da Asiako merkatuek gero eta pisu handiagoa dutela

Alemaniar esporthizetan. 2009-2010 bitartean, Alemaniatik Txinara esporthizak %70 baino gehiago hazi ziren, eta 27 estatuko EBko (EB27) esporthizen %47 herrialde horretara bideratzen dira dagoeneko.

Bestalde, Alemaniako klase burgesarentzat oso garrantzitsuak dira Mediterraneo hegoaldeko herrialde ahulenak, beren kapital eta salgaiak hara esporthitzeko eta, horrela, EB27ren barruko koherentzia bermatu eta ardatz frantziar-alemaniarren eusteko (AEBak Alemaniaren bazkide estratetikoa izanik). Nabarmentzekoa da 2008ra arte Alemaniako merkataritza-superabitaren %27,5ek euroguneko herrialde gain-zorpetuetan (PIGSetan: Portugal, Italia, Grezia eta Espainiar estatua) zuela jatorria. Horrek erakusten digunez, euroa markoa baino hobea zaio alemaniar lehiakortasunari eta EBko merkatu handiek garrantzi handia dute Alemaniak esporthizotarako eta nazioartean negoziatzeko duen gaitasunerako.

Eurogunearen etorkizuna dela eta, kapitalismoaren baitan ugaritzen ari diren kontraesanak ez dira politika ekonomikoetara (eurobonoak, EBZren jarduna eta zeregina, etab.) mugatzen soilik, arlo bakoitzaren gaineko kontrol geopolitikoaren eta merkaturen banaketara ere hedatzen baitira kontraesanok. NBEko Segurtasun Kontseiluan ikusi genuen horren adibide argi bat, Alemania AEBetatik, Frantziatik eta Erresuma Batutik aldendu zenean Libiaren aurkako erasoari buruzko lehen botoan, Txinarekin eta Errusiarekin bat eginez. Alemaniak energia nuklearra baztertzeko hartutako erabakia beste adibide bat dugu, horrek areagotu egiten baitu Errusiarekin duen mendeotasun energetikoa. Hona hemen kontraesanen ugalketa honen adibide gehiago: Alemaniako Auzitegi Konstituzionalean aurkeztutako konstituziokontraetasun-helegitea Greziari maileguak emateari eta aldi baterako babes-mekanismoari dagokionez, industria-patronaleko (BDI) presidente ohi Henkelen babesarekin; Bundesbanken txostena, uztailearen 21eko hitzarmena herrialde zorpetuen arriskuak Alemaniako ekonomia kontura "komunitarizatzea" dela esanez; edota Jürgen Stark EBZko ekonomialari buruaren dimisioa. Aipatzen ari garen adibide hauen guztien artean Philipp Rösler, Alemaniako kantzelariordearen adierazpenak nabarmentzen dira: Greziaren porrota tabutzat jotzeari utzi behar zitzaioela adierazi zuen Röslerrek.

Kohl eta Schmidt kantzeleri-ohiek, bestalde, Alemaniako gobernu gaitzetsi zuten Euro-Atlantiko harremanak ahultzeagatik eta eurogunearen alde azaldutako politika uzkur eta nahiagatik. Alemaniako Esporthizo Enpresen Patronaleko (BGA) eta alemaniar sozialdemokraziako buruzagiek eurobonoaren alde egindako adierazpenak gehitu behar zaizkio aurreko guztia. Esparru zientifikoan Alemaniako Finantza Ikasketen Institutuaren (IFO) eta Berlingo Ikerketa Ekonomikorako Institutuaren (DIW) arteko desadostasuna azaleratu da, mailegu alemanek eurobonoaren gain izango duten kostua dela eta.

Testuinguru horretan ari da Merkel, Alemaniako burgesiaren baitako kontraesanetarako erdibideko konponbide bat lortu nahirik, eta honako aukera hau proposatuz EBko gainerako kideei: "politika ekonomikoaren harmonizazio zorrotzagoa ala eurogune mugatuagoa". Nolanahi ere, bide horren helburua (Herbehereen, Austriaren eta Finlandiaren babes duena) ez da euroguneko herrialde zorpetuak kanporatzea. Argi dago herrialde bakoitzak bere interesak dituela, Greziari kreditua emateko proiektua bermatzeko negoziatzean Finlandiak erakutsitako jarrera gogorarekin argi gelditu zen moduan.

Finantza-mailan, Frantziako gobernu bat dator Alemaniarekin eurogunearen murrizketa zorrotz baten aurkako jarrera lehenestean, horrek Frantziaren aurkako indar-korrelazioa eragingo luke eta. Ildo hori behin eta berriro ikusi dugu: 2010eko urrian Deauvillen sinatutako hitzarmenean, 2011ko abuztuaren 16an Merkelek eta Sarkozyk proposatutako plataforma komunera, bi herrialdeetako enpresentzat zerga-estatutu bakarrarekin...

Frantziar estatuko bankuak Italiako eta Espainiar estatuko zorraren eraginpean daude (Italiako bonoen %15en jabe dira). Gainera, herrialde horretako ekonomia moteltzen ari da, eta, beraz, oso



litekeena da rating-agentziek haren ratingaren balorazioa gutxitzea azkenerako, AEBekin gertatu den bezalaxe.

AEBetako gobernuak Alemania presionatzen ari da haren politika murriztailea dela eta eurogunea salbatzeko garaian pisu txikiagoa hartzeagatik. Era honetako presioak nabarmen azaldu ziren Eurotaldearen goi-bileran Geithnerren eta Schäubleren artean izandako ika-mikan, bai eta Marseillan berriki egin den G7ren goi-bileran ere. AEBak kezkatuta daude Alemaniaren, Errusiaren eta Txinaren arteko balizko hurbiketarekin; bere merkataritza-bazkide nagusiak, EBk, beste krisi bat izateko aukerarekin eta; nazioarteko erreserba-diru bihurtzeko borrokan, euroaren eta dolarren arteko lehiak izan ditzakeen ondorioekin. Bien bitartean, beren gobernuaren politika espansionista salatzen ari dira errepublikanoak, osasun-erreformaren kontra, estatuak AEBetako monopolio handiei emandako 800.000 milioi dolarreko laguntza-paketearen eraginkortasunik ezaren kontra eta beren herrialdeko zor publikoaren hazkundearen kontra joaz.

Txinak eta Errusiak esan dute prest daudela euroguneko estatu zorpetuen bonoak erosteko eta herrialde horietako sektore estrategikoetan zuzeneko inbertsioak egiteko. Txina eta Italiaren eta Zipre eta Errusiaren artean sinatutako gobernu-kontratuak horren adibide bikaina dira. Aldi berean, BRICSek (Indiak eta Brasilek bereziki), Alemaniako mailegu-politika desegokiaren aurka kritikak plazaratu dituzte Nazioarteko Diru Funtsaren baitan. Errusiako eta Txinako gobernuak ere Alemaniaren eta AEBen kudeaketa eskasa gaitzetsi dute. Nazioarteko sistema inperialistaren baitako indar-korrelazioan gertatzen ari den aldaketaren erakusgarri dira aipatu ditugun adibide guztiak.

Laburbilduz, eurogunearen baitan hartutako hitzarmenek behin-behinekoak eta hauskorak izaten jarraitzen dute. Alemaniak eurogunea erreformatzeko duen plana —langileen aurkakoa izateaz gain— ez da gai izango ez EBren baitako garapen desorekatua galarazteko, ez kapitalaren gehiegizko metaketaren ondorioz beste krisi bat sortzea galarazteko. Alemaniako klase burgesarren baitako borroka honen emaitzak nazioarteko sistema kapitalistaren baitako indar-korrelazioan izango diren aldaketak baldintzatuko ditu.

Greziako klase agintariak kezkatuta egoteko arrazoiak dauzka, bere babes sendoenetako bat, Europar Batasuna, astinaldi ugari eta gero eta kontraesan gehiago jasaten ari baita. Kezkatzeko arrazoiak dauzka, beraz, krisia eta estatuaren zorrak kudeatzeko gero eta arazo gehiago dituela ikusita.

Langile-klaseak eta herritarrek, aldiz, ez dute agintarien kezketan zertan murgildu.

Azkenerako aukeratzen den eszenatoki kapitalista edozein dela ere (porrot kontrolatua estatu-bonoen beste "murrizketa" batekin, kreditu-proiektua etetea Grezia eurogunetik botata, etab.), eszenatoki hori langileen aurkakoa izango da eta langile-familien porrota ekarriko du. Langileen aurkako erasoaldi etengabe eta iraunkorrak zeharo kaltetu ditu haien lan-baldintzak eta pobrezia gorriera eramanez langile eta autonomo asko eta asko, guztia ere monopolioen lehiakortasuna bermatzeko plan burgesei jarraiki.

Langile-familiak soldata-murrizketa zorrotzak jasaten ari dira, nahiko balute ere ordaintzerik izango ez luketen zerga-politika errukigabe batekin batera. Eta seme-alabak eskolara bidaltzen dituztenean, han ez dute libururik edo behar beste irakaslerik aurkitzen. Ospitaleak supermerkatu bihurtu dira, eta osasuna salgai edo merkantzia bat da han. Eta gobernuak greziarrak denegatik ordaintzera behartzen dituen bitartean, haxixa legeztatu eta heroina-ordezkoak doan banatzen ditu. Lehen ministroak adierazi duenez, familia bakoitzeko kide batek gutxienez lana izatea da bere helburua. Langileak, gazteak eta ikasleak bereziki, borrokarako prest egon daitezen eragotzi nahi dute. Hezkuntza kentzen diete gure seme-alabei.

Baina jendea ez dago halakorik onartzeko prest. Ikasleek manifestazio masiboak antolatu dituzte. Egunero dago greban sektoreren bat. Manifestazioak geroz eta jendetsuagoak dira Grezia osoan zehar eta gero eta hobeto antolatuta daude.

Oraingo egoera langile-mugimendua berrantolatzeko eta herriaren kontraerasoa prestatzeko aukera historikoa dela ulertu behar dute langileek. Europar Erkidego solidarioaren mitoa sinesgarritasuna galtzen ari den honetan eta EB aliantza inperialista atzerakoi gisa azalatu zaigun honetan, EBren langileen aurkako izaera garbi gelditu den honetan eta ekonomia kapitalista kale itsua dela ikusi den honetan, dauzkagun ahalmen objektiboak proiektatu behar ditugu, herritarren beharrei erantzun eta gure herrialdeak garatu gabe dituen gaitasunak askatzeko. Orain ahal dugu, aukera ezin hobean gaude "EBtik aldentzeko eta zorra herriaren botereak ematen duen indarraren bidez kitatzeko" beharra erakusteko. Era berean, inperialismoaren baitako kontraesanak aprobeztatu behar ditugu langile mugimenduaren mesedetan.

Langileen borroka nabarmen hedatzen ari den garaiotan, inuzente samarra da pentsatzea gobernuak armak bertan behera utziko dituela, bere erabakiz. Fabrika bateko erresistentzia masibo eta antolatuak, adibidez, kontratu komertzial baten aplikazioa atzeratu dezake, baina horrek ez du esan nahi enpresaburuek beste biderik ez dutenik eskulanagatik ordaintzen duen prezioa merkatzeko, tresna ugari dituzte horretarako, hala nola lanorduei buruzko hitzarmenak, kaleratzeak kalteordainik txikiena ordainduz, eskulan merkeagoa kontratatzea, etab.

Era berean, patronalak nahi dituen bitarteko guztiak erabil ditzake sektoreko hitzarmenak bertan behera uzteko, patronal hori bera babesten duten lege kapitalisten laguntzari esker. Langileen aurkako lege horiek indarrak gabe uzteko, kapitalistak eta haien estatua gainetik kentzea beste aukerarik ez dute langileek.

PAMERen leloak honela dio: "langileok, nagusirik gabe ahal duzue", eta lelo horrexek gidatu behar ditu inposatu nahi dizkiguten neurri basatiei aurre egiteko martxan dauden borrokek, inposaketa horiek albatz gehien oztotatzeko. Era honetako borroka-eredu bat hedatzeko beharrezkoa da klase-sindikatuak eta autonomo, nekazari pobre, emakume eta gazteen mugimendu erradikalek bat egitea. "SAKRIFIZIO GEHIAGORIK EZ ENPRESENTZAT, EB-RENTZAT ETA EUROGUNEAREN RENTZAT IRABAZIAK SORTZEKO" erako leloen bidez jendea zenbat eta gehiago kontzientziatu, orduan eta indartsuago aterako da neurri basati horien aurkako erresistentzia, eta orduan eta eze-gonkorragoa izango da neurriok inposatzen dituen botere kapitalista.

Klase sindikatuek eta monopolioen aurkako autonomoen koalizioek ekimenak proposatzen jarraitzen dute lantoki eta auzoetan egindako bileretan, herritarrak itotzen dituzten zergen eta jendea pobrezia eta segurtasun gabeziara bultzatu besterik egiten ez duten neurrien aurkako erantzuna egituratzeko modu praktikoa, antolatu eta militantean.

Klase elkartasuna eta herritarren ekimena ezinbesteko baldintzak dira mugimendu honek gehien-ago eskuratzeko, klase-sindikatuak eta gainerako koalizio erradikalak erreferentzia gisa jardunez, "berez" sortzen omen diren "alderdi politikoak kanpora, sindikatuak kanpora" erako lela arriskuak errepikatu ez daitezten. Era honetako prozesu baten bidez, herritarrak beren benetako indarrak jabetuko dira eta botere hori erabiltzen jakingo dute inposatzen ari zaizkigun politikak ahuldu eta oztotatzeko.

Sor dezagun boterea herriari emango dion aliantza herrikoa!



PIERPAOLO LEONARDI, USB, ITALIA

Bizitzen ari garen krisia sistemikoa da eta kapitalismoan du iturria, gehiegizko ekoizpena dela eta garatzeko bide berrien bila baitabil. Krisiaren ondorioak ikusten ari gara orain, baina krisia aurreko hamarkadetan hasi zen berez. Krisia finantziarizazioaren bidez konpontzen saiatu da kapitalismoa, hau da, kapitala hedatzeko prozesuak ekoizpenetik finantza-espekulaziora eramanez.

Mundu osoan zirkulatzen ari den dirutzaren balioa ondasun eta zerbitzuak ekoizteko inbertitzen dena halako zortzi da, eta kopuru hori areagotzen ari da. Espekulazioa diru-masa ikaragarri horretan oinarritu da, hain zuzen, mundu osoan jarduteko. Krisiak ezaugarri asimetrikoak ditu: hondamendi larriak eragiten ari da kapitalismo heldua duten herrialdeetan (AEB eta EB), baina, aldi berean, hazkunderako aukera sendoak sortzen ari da goraka doazen herrialdeetan (BRICS direlako osatzen duten Brasil, Errusia, India, Txina eta Hego Afrikan).

Krisi honek utzi digun beste ondorio bat, gero eta ageriago azaleratzen ari dena, AEBen gainbehera dugu, Berlingo Harresia erortzearekin eta polo inperialisten arteko lehia zabaltzearekin batera hasi zena. Europa, adibidez, Libiaren kontrako erasoarekin zuzenean ari da esku hartzen gerra-eremuetan, behar-beharrezkoak dituen energia-iturriak eta lehengaien hornidura bermatzearren. Europar Batasuna bere benetako izaera erakusten ari da, beraz. Ez da Europako herriak biltzen dituen egitura bat, elkartasunean oinarritzen dena, hierarkiak inposatu eta gobernuek nahitaez bete beharreko aukerak erabakitzen dituen nazioz gaindiko egitura bat baizik.

Euroa, Alemaniaren esportazio-beharrei erantzuteko sortu zena Maastricht-eko parametroei jarraiki, alkandora hertsagarri baten moduko zerbait bihurtu da, eta ez ohiko finantza-neurri publikoak hartzera behartzen ditu Europako herrialdeak, krisia langileen eta haien familien bizkar botaz. Aldi berean, Europako Banku Zentralak (EBZ) hortxe jarraitzen du bankuei dirua mailegatzen, baina jasotako dirua garapenean eta hazkunderan inbertitzeko beharrean espekulazioa elikatzeke erabiltzen dute bankuok.

Italiako gobernua ordainketa-etenduran dago oraintxe, eta EB ari da hartu beharreko finantza-neurriak agintzen. Europar Batasunaren aginduak aplikatzeko arduraduna Giorgio Napolitano Errepublikako presidentea izan da. Italiako Alderdi Komunistako buruzagi-ohi hau beti egon da bere alderdiaren eskuinaldean, Atlantikoko ardatzaren alde, eta europazale amorratua da gaur egun. Berez, Napolitanok bere gain hartu du finantza-neurriak ezartzeko ardura, zentro-ekzerrari neurrioi aurre egiten utzi gabe.

Italiako zor subiranoa zor publikoko krisi gisa mozorrotu dute, baina ez da hala. Zorraren zati handiena enpresa-munduaren eta bankuen alde egindako transferentziek osatzen dute, eta %50 baino gutxiago ongizate-gastuek. Horren ondorioa da langileak eta herritarrak sakrifizio gehiago egitera behartuta daudela beraiek sortu ez duten zor bat kitatzeko.

Italiako krisia luzaroan gutxietsi dute. Berlusconiaren gobernuak bi urte eman ditu esanez Italia ez zegoela arriskuan eta, Grezia eta Irlanda ez bezala, ekonomiaren zimenduak sendoak zirela. Berez, zorraren krisia azaleratzen luze jo badu, Italiako familien aurrezpen handiari esker izan da. Orain, ordea, EBko periferiako gainerako herrien arrisku berean dago Italia, eta PIIGS (Portugal, Irlanda, Italia, Grezia eta Espainiar estatua) delakoetan sartu da. Krisiaren benetako kausak konpondu gabe gaintu nahi du krisia gobernuak. Horretarako onartu dituen austeritate-neurriak "kalteak murrizteko" ikuspegian oinarritzen dira, baina neurriok ez dituzte aurreikusitako emaitzak ekarri eta langileak eta haien bizi-baldintzak okertu besterik ez dituzte egin. 2010 amaieraz geroztik, egoera zuzentzeko hiru austeritate-programa jarri dira martxan, 140.000 milioi euroko zenbatekoan. Italiako ratinga A+etik Ara jaitsi berri du Standard & Poors-ek. Horrek berebiziko galerak eragin ditu burtsan, eta litekeena da gobernuak are murrizketa gehiago erabakitzea. Neurri horien zama-

rik astunena langileen eta haien familien bizkar doa, jakina. Administrazio publikoko langileen kontratazioa izoztuta dago duela urte asko, eta horrelaxe jarraitzea erabaki dute berriro. Polizia da langileak kontratatzen jarraitu dezakeen bakarra. Funtzionarioak Italiako bazter batetik bestera bidali ahal izango dituzte, behar larriak sortuz gero.

Emakumeen erretiro-adina 65 urtera arte atzeratu dute sektore publiko eta pribatuan, Europar Batasunak zuzenean eskatutako berdintasun-neurria dela arrazoitzat emanez. Erretiro-adina denontzat luzatu da, berez, antzinasun-sariak ezabatu baitituzte, eta gobernuak berriro ere esku hartzea erabaki du, pentsio-sariak murrizteko.

Estatu zentraletik udal-administrazioetara egindako finantza-transferentziak %75eraino gutxitu dira. Murrizketarik handienak alor hauetan izango dira: eskoletan, garraioan, osasun publikoan eta babes sozialerako funtsetan.

Udal-zergak nabarmen handitzea eta zerbitzu publiko guztien kostuak garestitzea eragingo du horrek. Era berean, zerbitzu publiko gehienak pribatizatzea eta estatuaren jabetzako eraikin guztiak (etxebizitzak, erakundeen egoitzak...) saltzea erabaki du gobernuak. BEZ puntu batean igo dute %21eraino eta horrek nabarmen garestitu du kontsumo-ondasun askoren kostua, bai eta energiaren, gasaren eta erregaien kostua ere. Premia biziko produktuen gaineko BEZ %4 eta %10ean utziko dute oraingoz, baina, behar izanez gero, igotzeko prest dagoela iragarri du gobernuak. Aurrekontua koadratzeko betebeharra Konstituzioan jasoko da, AEBetan bezala. Zerga-ihesa urteko 120.000 milioi eurora iritsi da, baina austeritate-neurrietan urteko hiru milioi euroko iruzurra egiten dutenentzako bakarrik aurreikusten da espetze-zigorra. Bestalde, diru-transferentziei %2ko zerga ezartzea erabaki du Berlusconiren gobernuak, beren jaioterrian bizi diren senideei diru kopuru txikiak bidaltzen dizkieten etorkinek soilik egiten dituzten transferentziak izanik halakoak.

Aurrekontua doitzeko austeritate-neurriez baliatuta, eta sindikatu kolaborazionisten babesaz, bigarren mailako hitzarmenak (herri-mailakoak, enpresa-mailakoak, etab.) lan-hitzarmen nazionalen bidez edo legez indargabetez aukera ematen duen artikulua Gobernuak onartu du. Horretarako sindikatuen ordezkarien gehiengoaren adostasuna besterik ez da behar izango.

Agerikoa da horren guztiaren asmoa zein den: kontratuko mugapenei muzin egiten uztea enpresaburuei, langileak kaleratzeko oztopoak kentzea, eta enpresaburuen esku uztea lanorduei, soldatei, oporrei eta abarri buruzko azken hitza, guztia ere sindikatuekin elkar hartuta. Ez dago Italiako egoera ekonomikoari lotutako arrazoirik bide hori justifikatzen duenik. "Goitik beherako neurri-sorta kolektibo" baten moduko erreforma hau langile-klasearen aurka aplikatu dute enpresaburuek eta burgesiak, Italiako langile-klasearen borrokak gerra ondotik gaur egunera arte izandako lorpenen mendekuz.

Krisiari emandako erantzuna urriegia izan da orain arte. Sindikatu kolaborazionista indartsuen presentziak eta klase-sindikatuaren zatiketak ahuldu egin dute mobilizazio-ahalmena. Jendeak krisiaren larritasunaz eta uda betean onartutako neurri ekonomikoen irismenaz duen pertzepzioa ere ahul samarra da oraindik. Nolanahi ere, USBk bi greba orokor bultzatu ditu: 2011ko martxoaren 11n lehena eta irailaren 6an bigarrena, eta bietan ere ehunka milaka langilek parte hartu dute, zerbitzu-sektorean (garraioa, energia, etab.) eta administrazio publikoan bereziki. Mobilizazio hauek oso lagungarriak izan ziren uraren pribatizazioaren aurka eta komunitateko ondasunen alde antolatutako erreferendum nazionalaren arrakastarako. EBren aginduen aurka, zorra ordaintzearen aurka, bankuak nazionalizatzearen aurka, EBZ Italiako gaietan esku hartzearen aurka eta Berlusconiren gobernu amaiztearen alde egiten zuten oihu grebalariek. Lantokietan ere ekintza ugari antolatu dituzte kaleratzeen eta soldata- eta eskubide-murrizketen aurka. Parlamentuan neurri ekonomikoak eztabaidatzen ari ziren bitartean, etengabeko manifestazioak antolatu genituen Senatuaren eta Diputatu Ganberaren kanpoaldean, eta istiluak izan ziren poliziarekin, neurriak onartu zirela iragarri zenean.



Edozein kasutan ere, oso krisi larria bizi dugu Italian. Gobernua aldatuta ere, politika ekonomikoak bere horretan jarraituko luke. Zentro-ezkerreko gobernu batek nahiz hauteskundeak bitarteko trantsizio-gobernu batek ere EBren eta finantza-merkatuen aginduak bete behar izango lituzkete. Horrenbestez, benetako arazoa ez da gobernuko koalizioa aldatzea, politika ekonomikoa aldatzea eta euroa kostatzen ahala kostatzen mantendu behar dela eta zorra ordaindu beharra dagoela dioen logika baztertzeko baizik. FSMn ordezkaturik dauden Europako herrietako sindikatuon arteko harremana areago sendotu behar dugulakoan gaude, Europako herritarrei krisiaren kostuak ordainarazteko saiakeri aurre egiteko bideak aurkitzeko denon artean. European, beharrezkoa da batasun sindikal indartsu gisa agertzea FSM, CESei alternatiba izateko. CESei ez diu auzitan jartzen EBren jardunaren oinarrian dauden printzipioak; aitzitik, laguntzen ari da Europako langileen eskubide eta bizi-baldintzen aurkako erasoaldian.

AUGUSTO PRAÇA, CGTP, PORTUGAL

Gauza jakina denez, Portugaleko langileak eta herritarrak espekulazioaren erasopean daude beren eskubide eta lan-baldintzei dagokienez.

Gure gobernuak egunotan hartzen ari den erabakiak aspalditik datoz gure herrian. Portugaleko langileek eskubide sorta zabala eskuratu zuten 1974ko apirilko iraultzari esker: oligarkiari aurre eginez, gure herriaren garapenerako sektore estrategikoak eta industria nagusiak nazionalizatu genituen. Baina, 1976tik aurrera kapitalista handiak boterera itzuliz gero, etengabe jo dute langileen eskubideen aurka. Halere, legearen alorrean eta hitzarmen kolektiboen bidez lortutako eskubideak suntsitzea helburu duten politikei aurre egiteko gai izan dira langileak orain arte.

Milurteko berriarekin, ordea, eraso gero eta indartsuagoa eta ohikoagoa izan da, lanari buruzko lege berriaren bidez bereziki. Lege horrek negozio kolektiboan adostutako eskubideak ezabatze mekanismoak ezartzen ditu. Portugaleko langileen %85 baino gehiago daude hitzarmen kolektiboren baten barruan, babes handiagoa izanik horri esker.

2003ko eta 2009ko Lan Kodeek hitzarmen kolektiboak ezabatzeko mekanismoak ezarri dituzte, eta enpresei eskumenak ematen dizkiete sindikatuarekin adostutako hitzarmenok indarrrik gabe uzteko. Mekanismo horren bidez lan-baldintzak inposatu nahi zaizkie langileei, XX. mende hasierara itzuliaz eta lan behartuko egoerak sortuz, zenbait kasutan.

Bien bitartean, enpresa handiek eta kapitalista handiek ekonomiaren kontrola berreskuratu dute, eta gobernuak (alderdi sozialistarekin hasieran, alderdi sozialdemokratarekin hurrena, eta kristaudekumokratekin orain) gure garapenerako estrategikoak diren enpresen kontrola eman diete kapitalista horiei.

Portugal Europako Erkidegoan sartu izanak ere bere eragina izan du gaur egun bizi dugun egoera zailean. Ekoizpen-sektore publikoa suntsitzeko EBk bultzatutako politikari jarraiki, enpresa nazional handiak atzerriko kapital handiari entregatu zitzaizkien, eta suntsituak izan ziren merkatua irabazteko eta horrela produktuak hor sartzeko. Esan bezala, EBren politikek garrantzi handia izan dute Portugalen, gure ekonomiako funtsezko sektoreak suntsitu baitira, hala nola, gure ontzidi osoa, nekazaritza-ekoizpena, burdingintza eta oinarriko industria osoa. Gure herria atzerriaren mendeko bihurtu da zeharo.

Portugaleko egungo egoera ulertzeko, urtetan zehar gure herriaren independentzia ekonomikoa saltzen jardun dutenek ehotako sarea nola garatu den ikusi behar dugu. Portugal 2008an iritsi zen krisira, atzerriarekiko mendekotasunari aurre egiteko inolako babes eta tresnarik gabe. Portugaleko ekonomia hamabi familiaren esku dago, eta familia horiek gure herriko %10 pobree-

nak baino ondasun gehiago daukate beren esku. Haien aberastasun gehiena burtsatik nahiz estatuaren finantzaziotik dator, eta partzuergo publiko-privatuen bidez ondasun ugari bideratu zaizkie familia horiei.

Burtsako espekulazioak ere pisu handia izan du gutxi batzuk aberasteko baldintzak sortzeko garaian, inolako ondasun materialik sortu gabe gainera. Portugaleko gobernuek bultzatutako politikek ez dute inoiz Portugaleko biztanleriaren benetako interesak aintzat hartzen. Burtsako espekulatuzaileek ez dute gure herriaren garapenean inondik ere laguntzen, zerga-babeslekuetan gordetzen baitituzte beren ondasunak.

2008ko krisiarekin okerrera egin zuen Portugaleko egoerak, krisia sortu zutenei laguntza gehiago ematea izan baitzen gobernuak orduan egin zuena, Europako Politiketarako Batzordearen erabakiari jarraiki. Hala, Banco Português de Negócios eta Banco Comercial Português bankuak erreskatatu egin zituen estatuak, haien zuzendaritza auzipetua egon arren kudeaketa iruzurtiagatik. Izan ere, Portugaleko dirutza handien zati handi bat (burtsako espekulazioaren bidez nahiz negozio are ilunagoen bidez bildutako dirutzak) bankuotan gordeta zeuden, eta estatua babesla ematera etorri zen estatuaren aurrekontua erabiliz.

Caixa Geral de Depósitos banku publikoa izan zen mugimendu horien kaltetu nagusia, zeharka, espekulazio-jarduera asko bankuaren diruarekin finantzatu baitziren, baina maileguak eskuratu zituzten kapitalistek ez dute dirua itzuli. Orain indarrean dagoen botere politikoa portugaldarrok egun bizi dugun egoera ekonomiko larria eragin duen botere bera da.

Portugaleko herriari bere sakrifizio-politika inposatzeko garaian, Nazioarteko Diru Funtzaren, Europako Banku Zentralaren eta Europar Batasunaren aginduak aipatzen ditu gobernuak, langile, pentsiodun eta baztertuen soldata, errenta eta laguntzen murrizketak justifikatu eta indarrean sartzeko, ezer ekoizten ez duten eta lapurtzen eta estortsioa egiten jarraitzen duten haien interesak ukitu gabe. Azken hauek ez dute batere zergarik ordaintzen, gobernuak haien esanetara jarduten baitu.

Portugaleko langileok eta herritarrok ez ditugu neurriok onartzen, ez onartuko. Hondamendi nazionala, atzerapen ekonomikoa, pobrezia, bazterketa soziala, hezkuntza eta osasun alorreko desorekak eta lanik ez dutenen eskubideen murrizketa dakartzaten politiken aurka borrokatu gara.

Politika horiei hainbat inizatibenez bidez erantzun diegu mobilizazio handien eta greben bidez. Eta aterabide bakarra dago: herriaren eta langileen beharrei erantzuten dien ekoizpen-sistema alternatiboa eraikitzea eta esplotazioa ezabatzea.



2. ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALEKO PROZESUAK LATINOAMERIKAN ETA SINDIKATUEN EKARPENA

2.1. JULIO C. GANBINA, CTA, ARGENTINA

Aldaketa politikoa eta soziala Latinoamerikan eta Karibbean.

Latinoamerika eta Karibea eskualde anitzak dira oso; errealitate desberdinak daude, eta, gainera, aldaketa politikoa eta soziala gertatzen ari da. Dena dela, aldaketa politikoa jatorria ez dago gobernu aldaketan, ez eta buruzagi batek edo besteak dioen horretan ere, lehenagoko gertaeretan baizik. Hain zuzen, 70eko hamarkadan estatu-terrorismoa garaile atera ondoren eta indarrean jarritako politika neoliberalen aurka 80ko eta 90eko hamarkadetan langileek egindako borroka eta erresistentzia dira aldaketa horren arrazoiak. Are gehiago, Amerikako jatorrizko herriek 500 urtez jasandako errepresioa eta egindako erresistentzia jar genitzake aldaketaren oinarrian.

Aldaketaren subjektua.

Ezin dira Venezuela, Bolivia edo Ekuadorreko egungo prozesuak ulertu, indarreko gobernuak agintea hartu baino lehenagoko borroketan herritarrek izandako parte-hartzea aintzat hartu gabe. Gauza bera esan genezake Argentina, Brasil, El Salvador, Nikaragua, Paraguai, Uruguai eta enparau guztietako prozesuez. Oso da gogoan hartzekoa Kubarena, bertako proiektu sozialistak bide eman baitzuen integrazio alternatiboaren erronkari beste baldintza batzuetan ekiteko: ALBA ituna.

Aldaketa horien subjektu politikoa gorpuztea izan da Latinoamerika eta Karibeko eraldaketa prozesuak abiarazteko gakoa. Izan ere, eskualdeko gatazketan eratu den subjektu politikoa hori izan da aurrerabidea ekarri duena. Aldatu egin da langileen antolatze modua, batez ere, 70eko eta 80ko hamarkadetan Reagan eta Thatcherrek bultzatutako oldarraldi neoliberalari aurre egin behar izan baitzioten; Europar Batasunean ezartzen ari diren politiken antzekoak jarri zituzten indarrean, baina, hori bai, estatu-terrorismoaz baliatuta.

Horrenbestez, ez dago XXI. mendeko askapen prozesuez jarduterik, aldaketaren subjektua gorpuztea ekarri duten lehenagoko borroka baxter utzita. Horren frogak dira hainbat eta hainbat borroka. 1989ko Caracazo deituak ekarri zuen Chavezek hamar urte geroago hauteskundeak irabazi eta 13 urtez agintean irautea, 2004-2005etik aurrera XXI. mendeko sozialismoaren erronkari eustea barne. Aldiz, jatorrizko herriei dagokienez, 1992ko Rio de Janeiroko Lurraren Goi Bilera izan zen jatorrizko herrien borrokaren ikusgarritasunari eta antolakuntzari bultzada eman ziona; Evo Morales da ordukoen gaur egungo adierazpidea. Are gehiago, jatorrizko herriak hain garrantzi handiko subjektu bihurtu dira, ezen aldaketa konstituzionalaren motorra baitira. Esaterako, Bolivia eta Ekuadorreko konstituzio berrietan «bizitza ona» kontzeptua txertatu dute, zibilizazio molde bati erronka jotzen diona.

Horiez gain, 1994ko zapatisten altxamendua aipatu behar da, Merkataritza Askeko Itunaren aurka eta jatorrizko herrien alde egin zuena. Aro berri bati hasiera eman eta liberalismoaren oldarraldia mugak jarri zizkion, eta ikasgai ederra da kapitala ahalguztiduna ez dela eta erresistentzia posible dela frogatzeko. Testuinguru horretan, mundu mailako kanpaina eta mugimendu bat sortu zen (1996an oihanean egindako topaketa, 1999an Seattlen lehertu zen antiglobalizazio mugimendua-aren aitzindari), jatorrizko herrien borroka edonongo langile- eta herri-klasetakoekin bateratu zituen. Hala, 90eko hamarkadan, borroka-subjektu gehiago eratu zen, ekialdeko sozialismoaren erialdia gertatu arren: borrokarako programa berriak, eta neoliberalismoari EZETZ eta subiranotasunari (herriena, energia eta elikagai arlokoena, eta abar) BAIETZ esatea jarri zen oinarrian. Horren isla dira Munduko Jendarte Foroak (lehen Porto Alegren egin zen, 2001ean). Gainera, Kubako prozesuak iraun izana egungo gainerako prozesuei bide emateko funtsezkoa izan da. Izan ere, Kubak sozialismora aldatzeko programaren gaia ipini zuen mahai gainean. Egun, puri-purian

dago bertan gizarte-errealitateen eraldaketan eman beharreko aurrerapausoen nolakotasunari buruzko eztabaida.

Borroka eta gertakari horien guztien ondorio dira XXI. mendeko gobernu progresistak, mugimenduaren aro berri bati bide eman eta mugimenduaren beraren eta estatuen nahiz gobernuan dauden alderdien arteko harreman-moldeak eraberritu dituztenak. Orain gutxikoa da 2005eko Herrien Goi Bileran, ALCA itunari ezezkoa eman ziona. Orduetik aurrera, gobernuak kritikoago ageri dira diskurto neoliberalaren aurrean.



Latinoamerika eta Karibeko egungo egoera

Latinoamerikako ekonomiaren hazkunde maila Europakoa baino handiagoa denez, ez omen dago krisirik bertan. Baina juxtu kontrakoa da; ekonomia hazten ari da sistemaren krisia mundu mailakoa delako. Eskualde orok dagokion eginkizuna betetzen du mundu mailako kapitalismoan, azken hau krisian egon arren, eta bertako gobernuak ezker nahiz eskuinekoak izan arren. Herrialdeak lehengaien esportatzaile bihurtu dira, Brasil barne. Berriz ere, Latinoamerika kapitala pilatzeko erabiltzen diren natura-baliabideen hornitzaile bilakatu da. Ondorioz, hazkunde garaian dago, baina munduak kobrea, urrea, litioa, mineralak, hidrokarburoak, petrolio, gasa, ura, lurra, jakiak, eta abarrak eskatzen dizkiolako. XVI eta XIX. mendeetan, Britainia Handia zen esportazioon helburu, AEBak gero, eta, egun, Txina da Hegoamerikaren merkataritza kide nagusia izateko bidean dagoena.

Hori bai, aintzat hartu behar da esportatutako lehengaien prezioen gorakada krisiak ekarri duela, ez produkzio-bide berriek. Gainera, ezin da ahaztu atzerritarrek direla Latinoamerikako eta Karibeko enpresa ekoizle eta esportatzaile nagusiak. Halaber da aintzat hartzekoa horrek zer eragin duen.

Baina, bestalde, lehengaien ekoizpen eta esportazioei esker, estatuek hainbat baliabide eskuratu dituzte. Hala, herrialde gehienetan gizarte-laguntzak eman ditzakete, gizarte-politika konpentsatzaileak erabiliz. Dena dela, estatuen gizarte-laguntza den modukoa izanik, oro har, bada-goela esan liteke, eta hori ez zen lehen gertatzen.

Eskualdearen geroa

Egun, tirabira eta eztabaida uneak bizi ditu eskualdeak. Lehian dira bi integrazio proiektu. Batetik, Merkataritza Askeko Itunak dakarren proiektu liberala, eta, bestetik, ALBA eta bere egitasmoak: Petroamerica (Karibia eta Erdialdeko Amerika), telesur eta finantza-egitura berria (Hegoaldeko Bankua, moneta komuna). Hala ere, estatuetako batzuek proiektu bakoitzean oin bana dute, eta badira Merkataritza Askeko Itunak eta ALBAk partekatzen dituzten proiektuak (MS, Unasur edota CELAC). Tirabira eta eztabaidak eragin ditu halaber, Argentinak, Brasilek eta Mexikok G20an parte hartzeak.

Laburbilduz, Latinoamerika eta Karibeko egoera interesgarria da oso, bertako eraldaketa proiektuak ageri-agerikoak direlako. Esaterako, Kubako proiektua, sozialismoa sendetsi duena eredu ekonomikoa berri eta gero. Venezuelako XX. mendeko sozialismo deitua, Boliviako sozialismo erkidea eta konstituzio-erreformak, juridikotasun berri bat eta kontsentsu politikoa dakartenak eragin beharreko egiturazko aldaketarako. Horiez gain, «bizitza ona» eta naturaren eskubideak aipatu behar dira, bi-biak Bolivian eta Ekuadorren indarrean jarriak. Badira, halaber, neoliberalismoari kritika egiten dioten prozesuak, baina, gaur-gaurkoz, liberalismoaren instituzionaltasunaren jarraitpena besterik ez direnak, Argentina, Brasil eta Uruguakoak, adibidez. Kontrara, badira Washingtoni erabat atxikitako estatuak, Kolonbia, Mexiko, Peru eta Txile, kasu.

Dena dela, suminduen matxinada indarra hartzen ari da eta Latinoamerikako mugak gainditu ditu: Afrikan ere antzeko mugimenduak sortu dira, bai eta inperioaren beraren bihotzean, AEBetan eta Europan, alegia. Sumindura horri etekina atera behar zaio; aldaketarako subjektuak gorpuztu,

sumina kontzientzia politiko bihur dadin. Askapenaren aldeko borroka-aro berriaren norabidea zehaztu beharra dago, aldaketa ekarriko duen gorputz sozial eta politikoa sortuz. Horretarako, ezinbestekoa da programa bat edukitzea. Hori da gure erronka.

2.2. JUAN CASTILLO, PIT-CNT, URUGUAY

Latinoamerikako eraldaketa prozesuak direla eta, sinetsita gaude ez dagoela aldaketa politikorik, ezpada herri-borrokaren ondorio dena. Gainerakoak makillaje politikoa besterik ez dira, aldi baterako erreforma soilak, boterean dirautenek aginduak, baina inola ere ez aldaketa sozial sakon eta errotikoak. Egun, ideiei buruzko eztabaidak eta borroka ideologiko bat gertatzen ari dira. Badago gobernura iritsita garaipena lortu duela usten duen jendea, baina gauzak ez dira horrela. Ezkerreko gobernuak eraldaketarako aukerak dakartzate, baina gobernu horiek ez dira eraldaketaren berme. Beharrezkoa da borroka-modu erradikal (errotiko) bat, koherentea eta iraunkorra, herrialdeen eta langile- nahiz herri-klaseen ahalduntzearen kontzientzia hedada dadin.

Gaur egungo egoera, lehenagoko borroken ondorioa.

Latinoamerikako azken hamarkadetako borroken abiapuntua 60koan kokatzen da, batez ere, gizar-te-egoerak nazkatuta, matxinatu ziren ikasleak aitzindari direla. Ikasle-mugimendu horien harira hasi ziren antolatzen langileak (orduak egituratu ziren sindikatuak), eta talde biek elkarrekin ekin zioten borrokari.

Herri-mugimenduaren gorakada etorri zen, beraz, 70eko hamarkadan, Latinoamerika osoan, Kuba eredu eta Allenderen ezkerreko gobernu (Txile) adierazpide zituela. Herri-mugimenduaren gorakadaren aurrean, agintari-klaseak basatiki erantzun zuen: diktadurak ezarri ziren Latinoamerikan. 70eko hamarkadan estatu-kolpeak etorri ziren bata bestearen atzetik, eta eskualdea diktadorez bete zen. Ondorioz, egituratze bidean ziren herri-mugimendu eta sindikatuen aurkako errepresio bortitza etorri zen. Ezkerreko jendeak aro beltza deritze urte haiei. Garai latza izan zen antolatuta zegoen herri- eta langile-klasearentzat. Ez zuen, ordea, borrokaren amaiera ekarri, beste borroka-aro bat baizik, klandestinoagoa, erresistentzian oinarritua, eta, azkenik, sufrimendu handien ondoren, diktadurak eraistea lortu zuena.

Diktadurak behera bota ostean (oraindik ere, desagertutako milaka militanteren gorpuzkinen bila ari gara Uruguain eta beste herrialde batzuetan), sistema burguesaren araberrako hauteskundeetan gobernariak aukeratzeko modua izan zenean, ezkerrekook eskuinekoak garaituko genituela uste genuen; baina ez zen horrela izan, eta kolpe latza hartu zuen langile- eta herri-mugimenduak. Horrenbestez, beste porrot horrek ateak ireki zituen neoliberalismo eta kapitalismo modernoan, Washingtonen kontsentsuaren errezeta deitua, sakon erro zedin.

Ondorioz, langile- eta herri-mugimenduak bere burua berrantolatu beharra ikusi zuen, indar are anitzagoen bilgune izateko eta jasandako porrotetatik ikasteko. Nahiz eta hauteskundeetan porrot handia jaso, sindikatuak eta herri-mugimenduak lanean segitu zuten kontsentsu neoliberalaren aurrean erresistentzia, borroka eta proposamen alternatiboak sor zitezten. Borroka batzuk irabazi, besteak galdu, horrela gertatu zen. Esaterako, pribatizazioak ez ziren berdin gertatu herrialde guztietan. Mobilizazio eta borroka askoko historia da gurea, beraz, porrot asko izan dituen, baina baita zenbait garaipen ere. Horrela, urteek aurrera egin ahala, eskualdean ezkerreko gobernuak eratzeko baldintza subjektibo eta objektiboak sortu ziren.

Kontuan izan behar da ez direla ezkerreko agintariak edo progresistak izan, behin hauteskundeak irabazita, aldaketa abiarazi dutenak. Juxtu kontrakoa izan da. Langile eta herri-klaseko milaka lagun urte askotako borroka, neke eta sakrifizioari esker, ezkerreko gobernu horiek garaipena lortzeko behar ziren baldintzak sortu ahal izan dira, borroka asko galdu eta kide gehiago bidean geratu ondoren.

Langile-mugimenduaren eginkizuna

Langile-klaseak eraldaketa politiko eta sozialeko prozesuetan garrantzi historiko eta ezinbestekoa du, baina ezin da subjektu bakarra izan, sindikatuen arteko batasun beharrezkoaz gain, funtsezkoa delako gizarte-, herri- eta politika-mugimenduekin lankidetzan aritzea. Elkarlanean ekin zaio herrialdeen askapenerako aukera egiazkoak eraikitzeari, eta ezin zaio nahikoa iritzi batasunerako tresnak sortu edo ezkerreko gobernuak lortzeari. Aldaketarako prozesu politiko orok sindikatuak eta herri-mugimenduak horretara engaiatzea behar du. Ezin gara ikusle soil izan, borroka egin beharra dago; ez da nahikoa herrialdeen norabidea gidatuko duten gobernuak lortzeko lehian aritzea; hori baino beharrezkoagoa da behin gobernura iritsitakoan militantzia aktiboa egon dadila eta prozesuak bultzatuko dituzten loturak sendotzea. Argi eduki behar da Latinoamerikako herrialde gehienetan, gobernura iritsi garen arren, boterea (sistema burokratiko, militarra, ekonomiko eta finantzarioaren gainekoa) betikoaren eskuetan dagoela. Horrenbestez, klase-borroka ez da iraganeko kontua, bere horretan dirau ezkerreko gobernuak lortuta ere. Itxura finduagoa du, bai, baina aurrera darrai, eta borrokan segitu behar dugu, ezkerreko agintariak edukitzeari aski iritzi gabe.

Horrela bada, sindikatuak erantzukizun historikoa dute, baita klaseari dagokiona ere, aldaketa prozesuen aurrean. Sindikatuak erakunde independentea izan behar du, klase mailakoa, eta ez die prozesu politikoei ezikusi egin behar. Konpromisoa hartu behar du prozesu politikoek aurrera egin eta egiazko eraldaketa soziala bermatzeko.

Horren harira sortu dira eztabaidarako tresna bateratuak, borroka ezberdinei buruzko esperientziak trukatzeko ahalbidetzen dutenak, eta beharrezkoa iritzi zaio eskualde mailako bat-egiteari eta elkarrekin borrokari ekiteari. Prozesuen artean desberdintasunak eta antzekotasunak daudela onartuta, borroka-molde horri esker, tresna berriak sortu dira. Esaterako, eta sindikatuak dagokienez, Encuentro Sindical Nuestra América (laburtuta ESNA, euskaraz Gure Amerika Topaketa Sindikala) aipatu behar da.

ESNA, Gure Amerika Topaketa Sindikala

Sindikatuak beharrezkoa iritzi genion garatzen hasiak ziren aldaketa-prozesu horietan protagonismo maila handiagoz eta modu aktiboagoan jarduteari. Sindikatuak kasuan kasuko gobernuak herri-tarrak aintzat hartzea eskatzen dietenean, sindikatuak beraiek ere bere gain hartu behar dute ardurari hori, eta ez dira egoera ekonomikoaren analista edo kritikari soil gisa agertu behar. Sindikatuak bere egin zuten eredu nagusien aldean beste aukera batzuk proposatu behar diren ideia, eraldaketa prozesuetan aurrerapausoak eman zitezten. Izan ere, sindikatuen ekarpenik gabe, aipatutako prozesuak hankamotz geratuko liriteke edo, bestela, makillaje prozesu huts besterik ez liriteke izango.

2006an Porto Alegren egin zen Munduko Jendarte Foroan –non, besteak beste, Hugo Chavez, Evo Morales eta Lula Da Silva parte hartu baitzuten–, sindikatuak politika gaitan inplikazio handiagoa izan behar zutela adostu zen, aipatu berri dugun ideiarekin tiraka; ez zirela gizarte gaitara mugatu behar, eta lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko borroka ekonomizistaren langile-klasearen interes zilegiak defendatzeaz gain, egiazko aldaketa politiko eta sozialaren aldeko konpromisoa hartu behar zela.

Horren guztiaren emaitza gerora ESNA (Gure Amerika Topaketa Sindikala) deitu dena izan zen. Hasiera-hasieratik argi geratu zen ESNA ezin zela kontinente mailako sindikatu izan, ez eta Latinoamerikako sindikatuen konfederazioa ere. Horregatik esaten zaio «topaketa». Hainbat sektore eta Amerikako sindikatuak iritzi-ildoren artean eraikitako gunea da ESNA, xede duena borrokari ekiteko hainbeste behar dena martxan jartzea, ekintza, alegia.

Sortu zenetik lau biltzar egin dira, Ekuadorren (2008), Brasilen (2009), Venezuelan (2010) eta Nikaraguan (2011), hain zuzen. Beroietan hainbat sindikatu bildu dira, uneko indar harremanetan

sindikatuak zertan eragin dezaketen adosteko, eztabaidaren bidez. Horrela, aldaketa prozesuei bultzada ematea da helburua. Hainbeste izan dira aurrerapausoak, ezen Latinoamerikako herrialde guztietako sindikatuak parte hartzen baitute.

Elkargune horri esker, eztabaida politikoak, prestakuntza ikastaroak eta ikerlari taldeak sortu dira, eta, egun, besteak beste, integrazio-prozesuak aztertzeari ekin zaio sindikatuen eginkizuna zein izan behar den zehazte aldera. Labur esateko, Amerikako sindikatuentzat tresna bateratu bat sortzeko prozesua da.

Gainera, ESNA tresna irekia da, Latinoamerikako sindikatuak ez ezik, beste edonongoak ere hartzen dituelako. Hala, beste kontinente batzuetako sindikatuak ere parte hartzen dute (LABek esaterako), indar-metatze eta ekintza-batasun beharrak bultzatuta. Horiez gain, ezkerreko gizarte mugimendu nahiz alderdi politiko nagusiak daude parte-hartzaileen artean.

ORAIN ARTE ARGITARATURIKOAK

<http://www.labsindikatu.org/formakuntza/iparhegoa/argitalpena/Haritik>



1. Klase borroka Europar Batasun berrian: eraikuntza europarrerako estrategia sindikala. -2004-
2. Euskal fiskalitatearen azterketa. -2004-
3. Gizonezkoek emakumezkoek baino %36 gehiago kobratzen dute. -2005-
4. Egungo Europako itun konstituzionalari EZ. -2005-
5. Jai egunak bizi egunak. Igande eta jaiegunetan itxita. -2005-
6. Enpleguari buruzko txostena. 2004 urtea. -2005-
7. Bolkestein mehatxua. La amenaza Bolkestein. -2006-
8. Elkarrizketa soziala, negozioazio kolektiboa eta generoa. -2006-
9. Herri Palestinarraren errealitateari buruzko elkartasun zertzeladak. -2007-
10. Energia nuklearra ez da etorkizuneko energia. -2007-
11. Kalitateko enplegua, bizi baldintza duinak lortzeko. Un emploi de qualite, pour parvenir a des conditions de vie dignes. Analyse des politiques d'emploi et alternatives. -2008-
12. Egungo krisialdi ekonomikoa aztergai. -2008-
13. Langileok krisia aurrez aurre. -2009-
14. Politika fiskala eta aurrekontu politika. Funtsezko tresna ondasunen banaketarako eta aldaketa sozialarako. -2009-
15. Kolonbiako sindikalismo eta estatu terrorismoa. -2010-
16. Osasuna eskubidea, ez negozioa-2011-
17. Krisi kapitalista Europan: Ezker eraldatzailearen jatorria eta erronkak -2011-